




GURESORO

BIZI OSASUNTSU

KANTITATEAK ETA KALITATEAK
ZEHAZTU DEZAKE ZURE
ORDAINKETA



HARAGIA



ESNEKIAK



SAGARDO
NATURALA



FRUITUAK



BARAZKIAK

*Eman garrantzia zure
osasuna zaintzeari!*



Isabel II. Donostia Hiribidea



guresoro@gmail.com

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain



BALIO PROPOSAMENA

Guk sortutako enpresa, produktu ekologikoak, Km0-koak eta bertakoak saltzeaz arduratzen da. Bestalde honako helburu hauek ere baditu:

- Obesitate maila jaitea.
- Inguruko nekazariei aurrera ateratzen laguntzea.
- Produktuen kalitateari garrantzia gehiago ematea.

Gure enpresaren kasuan, helburu jasangarririk indartsuena osasuna eta ongizatearena izango litzakeela ondorioztatu dezakegu, lehenago aipatutakoa kontuan hartuz.

Produktu hauen salmenta, vending makina bidez egingo dugu, horrela denek izango dute eskuragarri norberak nahi duen momentuan. Makina hauek, puntu



desberdinetan kokatuko ditugu, esaterako; Tolosa, Billabona, Andoain, Urnieta, Astigarraga eta Alegi .

Bezeroek eskuragarri izango dituzten elikagaiak honako hauek izango dira; hainbat barazki, esnekiak, sagardo naturala, fruituak eta haragia.

Gure kompetentzia nagusienak supermerkatuak edota herriko denda txikiak izan arren, beraiengandik bereizten gaituzten ezaugarri batzuk ditugu, esaterako; bertako produktu ekologikoak sustatzea, 24 orduko zerbitzua eskainiz eta leku ezberdinetara iritsiz.